

# Hitz beste

*Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak*

AGUR PAKITO!

Mitxel Murua

Ilustratzailea: JULEN TOKERO

*Elkar & Katxiporreta, Donostia, 2007*

## Hango ohiturak hemen

2004ko amaieran Mitxel Muruak idatzi eta Julen Tokeroak ilustratutako bilduma berri bat sortu zen: «Pirritx eta Porrotx. Familiak milakolore». Hasieratik argi eta garbi geratu zen bilduma berriaren eredu eta helburua: Pirritx eta Porrotx pailazoak protagonistak izanik, familia errealtate ezberdinak eskaintzen dituen saila, hain zuzen.


Guraso bananduen elkarteak, adopzioarako laguntza elkarteak, gay eta lesbianen GEHITU elkarteak eta harrera familia elkarteak lagundu eta sustatu dute bilduma hau hasieratik eta, hain zuzen, gure gizartean dauden familia mota ezberdinak erakusteko asmoz eginda daude liburuak.

Helburu hezitzailea nahiko argia da, oso liburu pedagogikoak izan daitezke, hezten, hezkuntza prozesuan lagungarriak gerta daitezkeen liburuak dira. Eta, hala ere, bildumako liburu gehienetan istorioak, haurra entretentzeko idatziriko testu literarioak, pisu handia du. Hots, idazlan hezitzaileak baina baita literarioak direla.

Muruak Pirritx eta Porrotx pailazoak jarri ditu protagonista istorioetan, eta pailazoen hizkerak, umoreak eta xelebrekeriek irakurlearen irribarra sorrazten dute. Are gehiago, sarritan kontatzen diren istorioen tristura edo seriotasuna beste ikuspegi batek aztertzen laguntzen dute pailazoek.

*Agur Pakito!* dugu sail honetako azken lana, eta aurreko guztietan bezala Julen Tokeroak, trazu argi, ederki islatu du testua irudi bizi eta alaietan. Haur txikiei kontatzeko

6+



moduko istorio hauek irudien bidez jarrai daitezke, irudien bidez uler ditzakete. Baina, irudietako tonua protagonisten izaerarekin bat dator, alai, bizi, koloretsua.

Istoria, baina, ez da alai... ez azken hau behintzat. Heriotzaz eta pobreziaz ari zaizkigu egileak, eta horretarako, pailazoez gain, beste bi protagonista erabili dituzte idazleak eta ilustratzaileak. Pakito, Donostia inguruan ibili ohi zen marrazoa eta Kintxo Barrilete, Nikaraguako haurra. Pakito marrazoaren heriotza kontatzen zaigu istorioan, baina baita Kintxok Nikaraguaz dioena, bere amarekin eginiko bidaiaz, bere amatei eta Arimen Zuhaitzari buruz esaten duena. Eta Nikaraguako ohitura horrek, hilerri bidean dagoen zuhaitzean hildakoaren arima joaten dela uste horrek, lagungarria gertatuko zaigu heriotzari aurre egiteko.

Liburuaren erritmo biziak (biziagia agian pasarte batzuetan), gertakari pilaketak eta Pirritxen eta Porrotxen izaera zurrumbilo batean sartzen gaituzte. Irakurleak Kintxo eta Pakito ezagutuko ditu, baita Nikaraguako egoera eta ohiturak ere, Pakitoren heriotzaren berri izan... eta Kintxok eta pailazoek

heriotzaren aurrean duten jokabidea ikusiko du. Hori guztia 30 orri eskasetan, irudiz osaturik horietako asko. Hala ere, bizitasun hori testuan ere jasotzen da, informazioa elkarriketen bidez jasotzen dugu eta narrazioa hasieran eta amaierako orrietan bakarrik agertzen da... irakurlearen sentimendua ukitzearen: «Koral zuhaitz bat zen, Arimen Zuhaitzaren itxura zuena ondo begiratu gero. Zuhaitzaren goiko parteak izurde mutur baten tankera zuen.

»Pirritxek, Porrotxek eta Kintxok elkarri eskua eman eta inguratu egin zuten izurdea, eta musu bana eman zioten», liburuaren amaierako pasarte honetan nabari daitezkeen bezala.

*Agur Pakito!* hau familia gurasobakarreko baten istorioa dugu, Nikaraguatik hona etorritako mutiko baten istorioa, mutiko horren amatei buruzkoa... baina baita Donostia inguruan igerian ibili zen marrazoarena eta haren heriotzarena. Kontu asko dira, eta Mixel Muruak nahiko ondo josi ditu guztiak ipuin honetan, nahiz eta batzuetan kontu gehiegi direla iruditu. Dena dela, irakasgai horien guztien gainetik bada beste bat: atzerriko ohiturak aberasgarriak gerta daitezkeela hemen ere.

Xabier Etxaniz Erle



**HIRIKO ANIMALIAK**  
Vicente Muñoz Puelles  
Ilustratzailea: NOEMÍ VILLAMUZA  
*Erein, Donostia, 2006*

### Ibilbide pertsonalak

Vicente Muñoz Puelles idazle valentziarra *Oskar eta postetxeko lehoia* (Anaya 1999, Espainiako Sari Nazionala) obragatik egin zen ezaguna haur literaturaren eremuan. Lehenago, obra oparora idatzia zuen helduentzat, eta itzultzaile gisa lan egindakoa ere bazen.

Oraingoan Erein argitaletxeak euskaratu dion *Hiriko animaliak* lehengo haren bidetik idatzitako liburua da: ume txiki baten beldur-erri buruzko istorioa hiri giroan kokatua, hiriko animaliak (kasu hartan postetxeko lehoia) istorioko elementu nagusi gisa erabiliz.

Halaxe da honako honetan ere: Rikardo umeak sei urte ditu eta Madrilen bizi da. Oso gauza gutxi daki munduaz, baina dakizkienak oso garbi dauzka: pertsona handiak (beltzez jantzitako emakumeak, gizon lodiak) ez zaizkio gustatzen; salbuespen bakarra, bere gurasoak. Beste gauza batzuk, berriz, izugarri gustatzen zaizkio, oso bereziki animaliei buruzko liburu koloreztatuak.

6+

Baina hiria ez da oihana, ez dago piztiarik. Dauden animalia bakarrak, txakurrak alde batera utzita, harrizko estatuetan daudenak dira. Horiek asko maite ditu Rikardok, eta arreta berezia jartzen die gurasoekin ataritzen den bakoitzean.

Prestaketa horrek ipuineko korapilorako bidea ematen du: egun batean, Rikardo galdu egin zen jendearen artean, eta hantxe geratu zen, ez aurrera ez atzera, zer egin ez zekiela eta beldurtuta. Baina umeek oso garatuta omen dute heldu gehienok galdua dugun pentsamendu dibergentea, arazoei ezohiko aldetik begiratzeko dohaina. Eta horri esker, eraman handiko irakurleak honez gero asmatuko zuenez, etxerako bidea aurkituko zuen: hiriko animalia batek beste batengana heltzeko bidea erakutsi zion (ahatea, zaldia, lehoia, zezena...), etxeko atarira (eta ipuineko amaiera zoriotsura) heldu zen arte. Hori bai, ipuina erabat amaitu aurretik, betiko finkatu zuen buruan etxeko helbidea: Perez Pujol kalea, 10. Eta hori guztia heldu gorrotagarrien laguntzarik batera gabe.

Ipuinari ez zaio umorerik falta, eta Noemí Villamuzaren irudiak indar berezia ematen diote.

Manu Lopez Gaseni

**HIRU TXERRIREN TXERRIKERIAK**  
Mario Ramos  
*Tarttalo, Donostia, 2006*

### Otsoak txerriei ihes

Irudi liburuek, edo albumek, bi kode erabiltzen dituzte beren mezua adierazteko; idatzizkoa eta irudien bidezkoa. Liburu honetara hurbiltzen denak azalean ageri den irudiarekin egiten du topo, ikus daitekeen bezala otso bat eta txerri bat ageri dira, baina oraingoan otsoak egiten du ihes eta txerria du atzetik harrapatu nahian.

Horixe dugu, hain zuzen, liburu honetako elementurik urratzaileena, gizarteak eta



gure kulturak ezarritako estereotipoaren kontrako jokaera, alegia. Liburua «ikasle berria» atalarekin hasten da, bertan zuzendaria ikasgelan sartu eta ikasle berria aurkezten die gainerakoei: «Koldo du izena. Aurrerantzean zuen gelan ikasiko du. Izan zaitezte atseginak berarekin» (4. or.) esaten die zuzendariak eta ondoren ikaskideen gogoetak ezagutu ditzakegu («beldur pixka bat ematen du», «gaiztoa ematen du», «gizajoa» 6. or.). Testuak diotenaren aldean irudiak txerri ikaslez beteriko gela aurkezten digu, eta ikasle berria, Koldo, otsokume bat. Beldurrik ematen ez duen kumea, eta ikasleen barreak jasan behar dituen.

Integrazioa, ezberdinen onarpena eta adiskidetasuna dira album honetako gairik nagusienak, baina egileak haurrak jarri beharrean Haur Literaturan hain ohikoak diren animaliak erabili ditu, alegien antzera, bere istorioa kontatzeko, distantziatik gaia eta argumentua hobeto ulertuko direlakoan. Mario Ramosen irudiak oso garbiak dira, trazua ongi markatuak eta komikigintzatik hurbilekoak; detalle xume batzuen bidez (begien eta aurpegien inguruak, batez ere) pertsonaien berri ematen duten irudiak. Eta gainera, album-liburu ongi egituratuetan gertatu behar den bezala, idatzia eta irudiak elkar osatzen dutelarik (oso adierazgarriak dira, esaterako, Koldoren

eta Aritzen aurpegiak jolastorduan, nola pasatzen diren aurpegi serio eta arrotzetik adiskidetasuna islatzen dutenetara).

Eskolan integratzeko zailtasunak dituen haur, barka, otsokume baten istorioaz gain, album hau helduen, gaiztoen edo nahi izanez gero abusatzailer batzuei aurre egiten dieten bi laguneren istorioa ere bada. Bai, Koldo gizajoak izugarriko beldurra baitu eskolara bidean aurkitzen dituen hiru txerri gaizto direla eta; Aritzek, hori jakitean, ideia bat izango du Koldoren arazoa konpontzeko eta lagunarekin jolastorduan harrapaketara («otso handi beldurgarrietara») aritu ahal izateko.

*Hiru txerriren txerrikeriak* liburu hau oso aproposa da irakurle hasi berrientzat, testu gutxi eta ulergarria duelako eta, arestian aipatu bezala, testua eta irudia ederki osatzen direlako (are gehiago, askotan testuak dioena irudiarekin osatu behar da egileak bilatzen duen ironia eta umorea harrapatzeko); baina horrez gain, album hau oraindik irakurtzeko gai ez direnei kontatzeko guztiz egokia da. Otsoaz dugun ideia, egileak erabilitako hipotestu –edo hipokultura– herrikoiarekin erreferentzia litzatekeena, primeran datorkigulako umore kutsua jartzeko istorioari, eta bide batez otsoaren irudi hori desmitifikatzeko (otsoa da basoan bizi dena amonarekin eta otsokumea da hiru txerri beldurra diena... eta txerrien txantxak, kankak, eta abar jasan behar dituen). Alde horretatik istorio honetan, modu batean edo bestean, gure kulturako ipuin askoren urrutiko erreferentzia daukagu; *Txanogorritxu* eta *Hiru txerri* txoak argi eta garbi ageri dira, baina baita ere gure jakintza kolektiboan dauden *Zazpi antxumeak* edo *Osaba Otso* bezalako herri ipuinak.

Dibertitzeko, ongi pasatzeko eta hainbat ideia desmitifikatzeko liburu dugu hau, bai eta ezezagunari, atzerritarrari, ezberdinari diogun beldurra kentzeko eta adiskidetasuna errebindikatzeko liburu ere.

Xabier Etxaniz Erle



EL NEN GRIS

Lluís Farré

Ilustratzailea: THA

EL HOMBRE DEL SACO

Josep M. Jové

Ilustratzailea: GUSTI

*La Galera/Círculo del Lectores, 2006*

### Sari osasuntsuak

Azkenotan sariak gaixorik eta hil-hurren jartzen hasiak omen dira gure inguruan. Katalunian, ordea, beti urrats bat aurrerago daudenez, arazo horri antzeman, nonbait, eta erietxeen esku utzi dute sariak deitzeko lana, hala, lehen gaixotasun-sintomak azaldu bezain laster, behar bezalako erremedioa jarri ahal izateko.

Hortaz, lasai asko esan daiteke, haur eta gazte literaturaren eremuan, Esplugues de Llobregat-eko Sant Joan de Déu Fundazioak urtero antolatzen duen «Premi Hospital Sant Joan de Déu» izeneko delatza ezagutzen dudana saririk osasuntsuena. Bost eta zortzi urte bitarteko umeei zuzendutako ipuinak saritzen ditu, eta bizpahiru foliotako testuarekin album ilustratu bat egin ohi dute. Lehiaketa hori hamargarren ediziora iritsi da aurten, *Dos fils [Bi hari]* izeneko lanagatik Pep Molist bibliotekariari emandako sariarekin. Azken testu hori oraingoz argitaraturik ez dagoenez, aurreko edizioetan saritutako bi liburuez mintzatuko naiz.

Lehen Josep M. Jové-ren *El hombre del saco* da, katalanezko jatorrizkoaren itzulpena, 2005ean saritutakoa. Mutiko protagonista oso kezkatuta dago gauez zaku pisutsu bat garraiatzen ikusi duen agure batekin, baina gurasoek ez diote kasurik egiten; amonarekin geratu zen gau batean, ordea, kontatu egin zion bere kezka; eta arazoa ikertu nahian gaueko ateraldi zirrargarri bat egin zuten. Errealitatearen eta fantasiaren arteko uztarketa bikaina izateaz gain, gizarte postindustrialeko hirietan aitona-amonek hartzen duten tutore eta zaintzaile zereginak islatzen du. Testuari izugarri laguntzen diote albumaren formatu handiak eta Tha irudigilearen komiki tankerako marrazki ederrek, ekintza plano hurbil eta ertainetan, pikatu eta kontrapikatuetan emanez.

Bigarrenak, Lluís Farré bartzelonarraren *El nen gris* izenekoak, 2006ko edizioak saria jaso zuen. Jaio zen une beretik grisa zen ume bati buruzko ipuina da. Inguruan dituen gauez ez diote ez barrerik ez negarrik eragiten; munduko gauza harrigarriek ere ez dute hunkitzen. Baina egun batean Gustau hamsterrari ekilore-hazi bat kontrako ezta-rritik joango zitzaion eta, haren eraginez, sentitzeko gaitasunaz jabetzen eta gurasoen kolorea hartzen hasi zen azkenean Martí ume txikia. Formatua, oraingoan, txikiagoa



da, eta irudiak Gusti-ren eskutik joan dira, ezagutzen genizkionetatik oso urrun. Biak, testua zein irudiak, hain dira berritzaileak, hain ohiz bestekoak, oso kritika suhar kontrajarriak jaso baitituzte.

Bi albumok egungo panoramaren erakusgarri aproposak dira, eta horietan oso ondo islatzen da haur literaturak gaur egun hartu duen norabide nagusietako bat: argumentuak, gertakizunak anekdota hutsalak dira, eta umearen barne kontzientzia eta garapen psikologikoa da benetan garrantzia duena. Album ilustratuez ari garenez, esan daiteke Maurice Sendak-en «Piztiak bizi diren lekuan» klasikoaren eredu nagusitu dela. Hainbestetan esan izan den legez, haur literatura kanpoko munduko abentura kontzetik barne munduko abenturaren berri ematera pasatu da, horretan ere helduen literaturaren ereduari urrun samarretik jarraituz.

M. L.G.

#### NOR NAIZ NI?

Gianni Rodari

Itzultzailea: IÑAKI ZUBELDIA

Ilustratzailea: MIGUEL TANCO

*Ibaizabal, Bilbo, 2006*

#### Haurra bere identitatearen bila

XX. mendeko haur literaturako idazle klasikotzat dugu Gianni Rodari gaur egun. Izan ere, ekarpen benetan berritzaile eta subertsiboak egin zituen literatura zein irakaskuntzaren eremuetan. «Errealismo fantastikoa» deitura ere harekin erlazionatzen da zuzenean: irakaskuntzaren mundua autoritarismoaren atzaparretan zegoen garaian, surrealismoan zein herri-literaturan oinarrituta, errealitatea fantasia-ukituz ziprizzintzeko egin zituen proposamen teoriko-praktikoak direla medio. Hor dira, esaterako, amaierarik gabeko Jolas egiteko ipuinak, irakurle bakoitzari bere gustuko bukaera asmatzera gonbidatuz idatziak; edo ipuin laburrak lantzeko zaletasuna, *Telefonozko ipuinak* izenekoaren bitartez. Oso ezaguna da, gainera, idazlearen ekar-



pen teorikoak biltzen dituen Fantasiaren gramatika.

Oraingoa Ibaizabal argitaletxeak berreskuratu duen liburua egilea hil ondoren argitaratu zen italieraz, 1987an, «fantasiako lehen jolasak» azpigituluarekin. *Nor naiz ni?* izeneko ipuintxoak bost urtetik aurrerako haurrentzat idatzitako liburu ilustratua da. Bertan, idazle italiarrak identitatearen bila dabilen ume baten pentsamenduaren garapena kontatzen digu.

Literatura tradizionalerako jolas ezagun baten bidetik, metaketaren bidezko kateatzea lantzen da: umeak bere inguruan jokatzen dituen rolen berri jasotzen du, eta galdera bakoitzaren ondoren elementu berri bat ezartzen zaio identitatearen zerrendari. Hala, zer naiz ni? galderaren erantzunari semea-haurra-neba-biloba-lehengusua-ikaslea-oinezkoa-bidaia-ikusentzulea-txirindularia-bezeroa-laguna eta askoz rol gehiago gehitzen zaizkio.

Toto umearen galdera kezkatien ondoan, collage-a eta era askotako testurak erabiliz Miguel Tanco irudigileak egindako marrazki koloretsu iradokitzaileek osotasun biribil eta erakargarria itxuratu dute.

Manu Lopez Gaseni



FURIA

Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA

*Erein, Donostia, 2007*

#### Telebista zuen lagun handiena

Karlos mutikoaren istorioa kontatzen zaigu Patxi Zubizarretaren azken lan honetan. Baina idazle ordiziarraren beste hainbat lanetan bezala, hemen ere istorioa aitzakia da beste zenbait kontu aipatzeko; Karlosen egoera dugu ardatz, baina horren amarruan irakurleari beste errealitate erakusten zaizkio.

*Furia* ipuin hau telefono dei batekin hasten da, amona Erikaren dei batekin, eta berehala ikusi ahal izango dugu Karlosen erreakzioa horren aurrean: haserrealdia amarekin telebista ikusten uzten ez diolako eta kasurik ez amonari. Ahozko tradizioan edo haur txiki-txiki albumetan bezala, pertsonaiaren karakterizazioa ekintzen bidez jasotzen dugu. Horrela, apurka-apurka Karlosen isolamenduaz jabetuko gara, telebistarekiko edo game boy-arekiko dependentziaz; eta, horrekin batera, gurasoan, irakaslearen eta zaintzailearen jokabideaz egoera horren aurrean. «Nire ustez nire lagunik handiena

telebista da» (23. or.), dio Karlosek eskolako idazlan batean; eta horixe izango dugu arazoaren errealitate gordina.

Zubizarretak, berriz, hari argumentatibo hori erabiliko du egungo gizartearen telebistaren bidez jasotzen ditugun irudien inguruan gogoeta egiteko (Usoa sailean, esaterako, egin izan duen bezala) eta errealitate hori salatzeke: «Ikusi dut, ama, ikusi dut! Irratian esan dutena lehen telebistan ikusi dut. Mutiko bat lotu dute tanke batean, besteek tiro ez egiteko» (18. or.). Eta oroimena izanik, berehala datorkigu burura soldadu israeldarrek ume palestinarrekin izaniko jokabidea. Are gehiago, aurrerago, beste atal batean, Karlos zapping egiten ari dela «Beste (kate) batean mutil bat hilik daramate, garrasi artean, izara batean bildua. Karlosek aitari esango lioke tankeko mutikoa dela, baina ez du ahoa zabaldu» (50. or.) irakurtzen dugunean.

Izan ere, jauziak daude gertakarien artean; amona Erikaren deia gertatzen denetik amaierara arte hainbat egun pasa dira, baina zazpi kapitulutan gertakariak, komentarioak, erreferentziak... testu guztiari batasuna ematen diote. Amaiera, gainera, amonari eginiko dei batekin, ziklo baten itxiera balitz bezala agertzen zaigu.

Egitura, ordea, ez da ziklikoa. Amaierako Karlos ez da hasierakoa. Amaieran Karlosek amonari deitzen baitio telefonoz, eta musu handi bat bidali pozaren pozez.

Patxi Zubizarretaren ofizioa agerian dugu idazlan honetan; ideiak lotzeko trebezia, zatikako narrazioa «batzekoa» (neurri batean *Barrikadak* nobela ederrean egin zuenaren antzera) edo hitz gutxitan (Karlosen istorioa oso arin eta azkar irakurtzen da), deskribapen gutxi erabiliz, istorioa, tonua, erritmoa... lortzeko abilitadea: «Jolasean dabiltzala esan daiteke, baina biak ala biak oso serio daude, gorri-gorri eta atezuan» (8. or.). Irakurleak ez du hitz gehiago behar ama-semearen arteko tentsioa, haserrea eta borroka irudikatzeke.

Elena Odriozolaren ilustrazioek, gainera, aberastu egiten dute Zubizarretaren idazkia. Arestian aipaturiko haserrealdia

irudia, esaterako, oso adierazgarria da: lau orritan zezen gorputza eta amaren burua duen irudia. Irakurlearen espektatibekin jolastuz, irakurlearen harreraren ustekabea eta atsegina sortuz, ilustrazioek aberastu egiten dute liburua. Idatzitakoa osatu eta ulertzen laguntzeaz gain (Karlosen irudi batzuk oso lortuak dira arlo horretan), beste irakurketa bat gehiago eskaintzen dute, istorioa sentitzeko beste era berri bat ematen.

Ez gaitu, beraz, harritu behar liburu hau erdaraz ere kaleratu izanak, azken urteotan gure idazle eta ilustratzaile batzuk erakusten ari diren kalitatearen beste froga bat baita.

Xabier Etxaniz Erle

### ZAKU BETE HAUTS (EUSKAL HERRIKO MAITAGARRI IPUINAK)

Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: LUIS ALONSO

Aizkorri, Bilbo, 2007

#### Arimaren heziketarako

Duela zenbait aste, *Gara* egunkariako «Zazpika» gehigarrian, egin berria duen Tideland filmaren harira, honakoa irakurri nion Terry Gilliam-i, hau da, Monty Python talde entzutetsuko kide ohia: «Maitagarri ipuinik onenak, hala nola Grimm anaienak, izugarri bortitzak dira, asaldagarriak. Baina, aldi berean, liluragarriak. Hala ere, ezikusia egiten diegu. Maitagarri ipuinak aipatu, eta jendeari Barrio Sésamo datorkio gogora; halakoxe munduan bizi gara. Izugarria da. Grimm anaien historiek haurrak errealitaterako prestatzen zituzten, maila metaforikoan prestatu ere. Munstroak, gaukoak, sorginak... Film honetan ipuin horiek irakurritz bizi izan den eta errealitate gordinari aurre egitea lortu duen neskatala baten historia kontatzen dut».

Askoz lehenago, duela zenbait urte, Juan Kruz Igerabidek idatzitako Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotatua eta Literatura) entseguan, antzekoak irakurri genizkion orduan idazle bainoago aditu gisa zuzendu



zitaizunari: «Haurrari bizitzan gerta lekiokeen zernahi, sinbolikoki islaturik egongo litzateke aldez aurretik ipuin horien txokoren batean», edo: «Haurrak, azkarrenak ere, bere burua indarge eta ezereza ikusten du helduon munduan; hori ibiltzeko ez dauka ez indarrak, ez trebetasunik. Horregatik, amandre ipuin askoren hasieran protagonista baldarra eta ahula izan ohi da; gero, gorabehera askoren ondoren (alegia, heldutasunera iristeko inimizio bidearen ondoren), indartsu eta trebe izatera iritsiko da».

Eta hain zuzen ere Zaku bete hauts (Euskal Herriko maitagarri ipuinak) honetan, orain idazle bainoago irakurle gisa egoki aukeratutako halako abentura ugari irakurri ahal izango ditugu, bortitzak, asaldagarriak (badago kanibalismorik ere...). Ipuinak ezabaketarik gabe datozkigu, gordin, eta idazlearen esanetan maitagarrienak baino gorrotagarrien ipuinak dirudite. Ez espero, beraz, gozori—eta hala ere, gozatu amaiera oro har zoriontsuekin—. Ipuin batzuk eza-gunak zaizkigu, hala nola liburua zabaltzen duen Mari Errauts sona handikoa, baina beste asko deskubrituko ditugu, eta denek ere piztuko dute oihartzunik geure baitan. Eta oihartzunez ari garela, ez dugu ahaztu behar Juan Kruz Igerabide idazle bainoago itzultzaile gisa aritu zela Gustavo Martín Garezoren Maitagarrien hiru ipuin euskaratzen.

Idazle valladollidarrak, orduan, Tolkien eta Chesterton ekarri zituen hizpidera. Lehenengoak esana omen da herensuge zaharrek beraiek asmatu dituztela herensugeak hiltzen dituzten zaldunak, beren kumeak beldurtzearren eta beren inguruetatik gehiegi urrun ez daitezen lortzearren; bigarrenak esana omen da herensugea haurrak berak daukela bere baitan, eta literaturak zalduna ematen digula. . .

Ipuinen amaierarekin, bibliografia laungarri bat dago –Arratibel, Barandiaran, Satrustegi, Etxaniz. . .–, baina beharbada epilogo argigarri bat ere komenigarria litzateke, irakurle arruntak ez baitaki Bularretik mintzora hartan aipatzen diren amandre ipuinak zer diren, zer maitagarri ipuinak, zer kontu zaharrak edo ipuin tradizionalak, edo denak ere berdinak diren. . . Hala ere, edukiaz harago, Aizkorri argitaletxearen edizioa ere nabarmendu beharra dago, gurean halakoak oso bakanak izaten baitira. Batetik, Luis Alonsoren ilustrazioak oso iradokitzaileak dira, deitaleetan oinarritzen dira protagonistetan baino gehiago, eta halako kutsu kaleidoskopikoa dute, mila zatitan puskatutako beira koloretsuz eginak balira bezala. Bestetik, orrialdeak ere kolorez eta mantxaz zikindurik datoz, baina hori baino gehiago tipografia nabarmendu beharra dago, eta hau ez beharbada onerako: eskuz idatziak diruditen testuak nekez irakurtzen dira, oztopatu egiten dute berez hain gozagarria eta gomendagarria den irakurketa.

Laura Sagastume



#### IRRIKAREN DISTIRA

Antton Kazabon

Ilustratzailea: AGURTZANE VILLATE  
*Pamiela, Iruñea, 2006*

Nerabezaroan Erosen indarra pizteak munda zabaltzen gaitu, bizipenez betetzen, baina,aldi berean, badakigu betiko galtzen ari garela haurtzaroko babesa eta gardenatasuna. Antton Kazabonen bi hari horien gainean eraiki du nerabeentzako poemario nerabea, zentzurik onenean, alboraino gerturatzen baitzaie, belarriraino, eta bazueta baita bihotzaren muineraino ere. Aspaldidanik ari da Antton nerabeentzat testuak idazten, eta gero eta gertuago ikusten dut haien sentikortasunetik, eta modu xumean islatzen ditu haien nahiak, kezak, eta, batez ere, maitasun-egarriak, -porrotak, -zalantzak, -beldurrak eta -pozak.

«Zure aurpegiaren tatuajea masailan daukat oraindik baina bihotzean daukadana ez da zurea.

Zer gertatu zaigu?

Aurpegikoa

ezabatuko da berehala

udako eguzkiaren kolorea joan ahala.

Bihotzekoa ez bezala.»

Zalantzak, irrika eta sentiberatasuna alde guztietatik: «Ez dut harrizkoa izan nahi».

Poza bezainbat mina eta porrota:

«Nori ahaztu zaito  
desamodioaren basamortuan  
iturria jartzea?».

Eta haurtzaroko paradisuaren nostalgia: «Ume izan nahi dut berriz» dio «Bakardadearen eskutik» poeman; gai bera garatzen du «Lurretik lurrera» poeman ere; biziki atsegina dut nola islatu duen poema horretan haurtzarokoaren (globoaren) galera hori:

«Haizeak globoa eraman dit /  
kendu.

Negar egin dut.

Globoak gora eta gora  
negar malkoak behera [ . . . ]

Malkoen kargak /  
lurrari begira jarri dizkit begiak».

Hitzok erdi-erdian jotzen dute betiko nerabe geratu garenon bihotza.

Juan Kruz Igerabide

#### TXERRIKUME PIRATA

Cornelia Funke

Ilustratzailea: KERSTIN MEYER  
Itzultzailea: ANTON GARIKANO  
*Elkar, Donsotia, 2007*

#### Benetako altxorra

Kultur aniztasunaren eta literaturen arteko trukaketa gero eta sarriago gertatzen dira gure inguruan, eta horrek, Lambertek dioen bezala, hainbat arrisku sor ditzake, baina baita aberastasuna ekarri ere. Euskal Haur eta Gazte Literaturan (HGL) ezagunak dira Rodari, hil berria den Gripe, Dahl, Nöstlinger, Mankell edo Janer Manila idazle kanpotarrik, baita nazioartean *best seller* sortzaile bilakatu diren J. K. Rowling eta Cornelia Funke besteak beste.

Duela hiru urte Pello Zabaletak euskaraturik argitaratu zen C. Funkeren lan ezagunetariko bat: *Lapurren burua* (Elkar); eta orain, aldiz, idazle alemaniarraren ipuin

8+



labur berri bat eskaintzen zaigu: Txerrikume pirata. Liburua irakurle berriei zuzendua da, eta irudiak testuan agertzen den informazioa osatzeaz gain, edertu egiten du produktua, Kerstin Meyerren irudi errealistak oso alaiak baitira, Mikel Valverderen ilustrazioen antzera, eta ipuinaren giroari eta tonuari ederki lotuta ageri dira.

Izenburuak irakurlearen arreta erakarri eta interesa, jakin-mina, sor dezake, azaleko irudiak areagotzen duen jakin-mina. Baina liburuko orrietan barneratu ahala berehala barneratuko gara Tximeleta uhartean, Sven Pottolo eta Pit txalupa-mutilaren eskutik. Izan ere, bikote bitxi hau, Sven eta Pit, Jule txerrikumearekin batera, istorio honetako protagonista nagusiak ditugu.

«Goiz batean, baina, lanean hasi aurretik hondartzan paseo bat ematea erabaki zuten. Sven Pottolo itsasoari begira zihohan, eta Pit txirlen bila zebilen harea artean.

»Eta halako batean, olatuek upel bat utzi zieten oinen parean» (9. or.); upel horrek arantzaleen bizitza aldatuko du; barruan zihohan txerrikumea euren maskota bilakatu eta beraiekin ibiliko da arrantzan, paseoan... baina Svenek eta Pitek berehala deskubrituko dute Jule oso txerrikume berezia dela, beste batzuek mendietan boilurrak bezala, Julek altxorak aurkitzen baititu itsasoan. «Jule marruka hasi zen, isats kiribilean marrazo batek hozka egin balio bezala. Orduan,

zalapartan, mastako sareari muturrearekin heldu eta itsasora bota zuen.

»—Demontre, Jule! —hots egin zion Svenek txundituta—. Arraia batek heldu din, ala?


»Baina Piten eta bien artean uretatik atera zutenean, sareak distira egiten zuen, urrez eta zilarrez beteta» (12-13. or.).

Altxorrek ez dute, hasiera batean, Svenen eta Piten bizimodua aldatuko; Jule elikatzeko behar dutena hartu eta koroak, harribitxiak, belarritakoak... uretara bota berriro. Zorteak, ordea, bizkarra ematen die, pirata batzuek Juleren berri izan eta bahitzean.

Abenturek eta ipuinean zehar dagoen umore kutsuak amaieraraino lagunduko digute narrazioan, eta irakurketa are azkarragoa eta atseginagoa bilakatuko dute. Ipuinak Zohar Shavitek aipatzen duen baliobiko egoera du («Haurrei nahiz helduei zuzendurik, eta haurrentzako testua dela itxura emanez bakarrik, lor dezake idazleak testuaren baliobiko onarpena»); hots, helduentzat eta haurrentzat, hainbat arazoirengatik zenbaitetan, erakargarri bilakatutako testua izatea. Cornelia Funkeren ipuin hau irakurlea harrapatzen duten horietako dugu, ekintza ugari eta arin irakurtzen dena, eta Anton Garikanoren itzulpenak badu zerikusia ipuinaren irakurteraztasun horretan, piraten eta tokien izen bitxiak zailtasun txikia sorraraz badezakete ere.

*Txerrikume pirata* ipuin honetan haurrak abenturak, intriga eta tentsioa (eta amaieran, gozamena) sentitzen dituen bezala, badu bestelako mezuak ere jasotzeko aukera ipuin entretenigarri eta erakargarri honetan, hala nola aberastasun materialen kontrakoa, eta benetako lagunaren aldekoa. Benetako altxorrena.

Xabier Etxaniz Erle



ZERGATIK BIZI DA BASOAN  
TXANOGORITXUREN AMONA?

Enkarni Genua

Ilustratzailea: JON ZABALETA

Erein, Donostia, 2006

### Amonaren beldurra

Enkarni Genuaren liburu honen paratestuei erreparatuta (izenburua, saila, irudiak...) informazio asko izan dezakegu obra honi buruz. Antzerki lan bat da, 7-10 urte bitartekoentzat —argialetxearen arabera—, Jon Zabaletaren irudi koloretsu eta biziak apainduta, eta Txanogorritxo ipuin ezagunaren inguruan eraikitako obra. Jakina, paratestuek ez dute informazio guztia ematen (zerbait utzi behar da irakurleak bere kasa aurki dezan) eta horrela, Genuaren proposamenean barneratuz eta ama-semearen arteko istoriotik abiatuta, Txanogorritxoren ipuinaren bertsio berri bat aurkitu ahalko dugu.

«Udazkeneko arratsalde euritsu bat zen; Xabi eta bere ama egongelan zeuden. Xabi, asperturik, kamioi batekin jolasten ari zen, eta ama liburu bat irakurtzen» (9. or.).

Honela hasten da liburua, etxeko giro hori deskribatuz, eta ondoren ama-semearen arteko elkarriketari ekiten dio egileak. Amak liburu bat irakurtzeko proposatuko dio Xabiri, baina honen erantzuna oso garbia da: «(Liburuak) ez du ezertarako balio [...]

Liburuak gezurrez beteta daude» (9. or.). Ideia (hasieran harrigarri samar) horretatik abiatuta, fikziozko liburuen kontrako alegatua egiten omen du egileak, «Ipuinak dira okerrenak [...] Ipuin bat irakurri ondoren ez zara erdiaz ere jabetzen» (10. or.). Amasemearen arteko ideia trukaketa izango dugu, eta Xabik, bere ideiak indartzeko, amak proposaturiko Txanogorritxo ipuinaren inguruan dauzkan zalantzak plazaratzen ditu... hariak eta azken galdera egin arte: Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona? Amak, orduan, Xabiren galderaz gogaiturik, berak ikertzeko esaten dio, eta horretarako ipuineko protagonistak ekarriko ditu eskenatokira. Amona, Txanogorritxo, otsoa eta ehiztariak gain basoko animaliek eta musika tresnek ere parte hartuko dute antzezlari bitxian.

*Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* Obra hau nahiko erraz antzez daiteke; eskenatoki aldaketarik gabekoa, pertsonaia kopuru txikia eta ongi definitua, elkarrizketen eta argumentuaren sinpletasuna, hauek guztiak antzezpenean errazten duten elementuak baitira. Genuak, gainera, ez du denbora jauzirik ez toki aldaketa handirik erabili Xabik bere ikerketa gauzatzen duen obra honetan. Badira, bestalde, elementu errepikakorrak (rap moduan egiten duen kantua, esaterako) irakurle/ikusleak argumentua jarrai dezan, eta jolas literarioak (agian hurrek harrapatuko ez dituztenak, baina irakurle edo ikusle helduak bai), Aliceren abenturak lurralde miresgarrian liburuan bezala agertzen den untxia (24. or.), edo metaliteratura jolasak amonak Xabiri esaten dion «zu ez zara ipuin honetakoa» (38. or.), esaterako, edo amaieran aldean, amak dioenean «Ipuin honek ondo bukatu behar du» (42. or.).

«Antzoki txikia» bildumako 6. liburu honek, bestalde, izenburutik bertatik argitzen digu zein den obra honetako hipotestia; hots, aldatu den jatorrizko testua, Grimm anaiei Txanogorritxo ipuina, eta bertsiotzat egunetik abiatuta, Xabi detektibeak beste mundu berri bat erakutsiko digu, hirugarren adine-

8 +

koena, aiton eta amonen mundua. Izan ere, Txanogorritxoren amona pozik bizi da, baina gainerako amonak, nola bizi dira? Zein da hauen ikara handiena? Beldurrik izugarriena? Bakardadea. «Orduan amona... zeri diozu beldur??» Txano-ren galderari hitz bakarrez ematen dio erantzuna amonak: «Bakardadeari!» (39. or.).

Sarritan gertatzen den bezala, herri ipuin bat oinarri izanik ipuin berri bat eskaini ohi zaigu, berria, gaurko egoerak eta arazoak kontuan izanik... eta, gainera, transtestualitate honek ematen duen aukera baliatuz, umore kutsua izanik. Ez da azken hau Txanogorritxoren amonari buruzko antzezlan honen kasua, baina aitortu behar da Enkarni Genuak gustura irakurtzen den (bai eta Jon Zabaletaren irudiek bizitasun handia eman ere) eta erraz antzez daitekeen obra eskaini digula oraingo honetan.

Xabier Etxaniz Erle

10 +



DENBORAREN MAKINA  
AUTOBUSAREN ZAIN

Alaitz Olaizola  
Erein, Donostia, 2005 eta 2006

### Antzerkiaren gurpilean

Haur eta Gazte literaturari eskaintako plaza honetan, behin baino gehiagotan hitz egin da Erein argitaletxearen «Antzoki Txikia» bilduma berriaz, zehazkiago Aizpea Goenagak eta Enkarni Genuak argitaratutako obrez. Hirugarren egile bat badago, ordea, eta hari eskainiko diot gaurko iruzkina.

Alaitz Olaizola (Azpeitia, 1975) toki bat egiten ari da euskarazko literatura dramatikoaren esparruan, haur zein helduentzakoan. Adibidez, Euskaltzaindiaren Toribio Alzaga saria eskuratu zuen 2002an, «Zerok zera zertzen delako» lanarekin; eta antzerki alorreko Donostia Hiria 2004an, «Clitemnestraren itzulera» obrarekin. Haur eta gazteentzat argitaratu dituen lan guztiak, berriz, «Antzoki Txikia» bilduman dauzka: *Non biziko gara* eta *Txikue*, 7-10 urtekoentzat, eta *Denboraren makina* eta *Autobusaren zain*, 10-12 urtekoentzat. Azken biak izango ditut gaur hizpide.

*Denboraren makina* eta *Autobusaren zain* adin tarte bereko umeei zuzenduta daude, agerraldi bakarreko obrak dira eta, umeei antzezteko, oso egokiak biak; taxukeran



zein edukietan, baina, antzerki lan oso desberdinak dira.

Lehenean, ume batzuek denboraren makina bat asmatu dute, zahartzaroaren eraginez aspertuta eta petralduta dagoen aitona alaitzeko. Makina hori, ordea, ez da denboran barrena bidaiatzekoa, garai bakoitzeko pertsonaia historiko ezagunak *ekartzeko* baizik. Obraren asmo didaktikoa hasierako sinopsian onartzen da: obra horren bitartez «historian zehar egon diren pertsonaia ezagunenetako batzuk ezagutuko ditugu. Beraien azalean sartuko gara, beraietaz zerbait gehiago ikasiz». Irakasteko asmoari laguntzeko, gainera, umeek «ordena kronologikoa erabili»ko dute pertsonaioi erakusteko: Kleopatra, Galileo, S. Frantzisko Xabierkoa, Pokahontas, Mozart, Mary Shelley eta Charlie Chaplin. Planteamendu horretatik ondoriozta daitekeen legez, antzerki lana geldoegia da, ia ekintzarik gabekoa: heldu orduko, pertsonaia bakoitzak bere bizitza eta eginen berri ematen du, zuzenean zein umeen galderen bidez. Obrak, gainera, ez du garapenik, mendeen joan-etorriaz landa: etorritakoak zazpi edo hamazazpi izanda, berdin. Aitona, bestalde, ez da asko pozten bilobek ekarri dioten opariarekin, Chaplin azken pertsonaiaren bidez obra biribiltzen den arte; orduan hasten da berarekin dantzari, eta bizipoza berreskuratzen du.

*Autobusaren zain*, esan bezala, oso beste-lakoa da: udako arratsalde euritsu batean hiriko autobus geltoki batean elkartzen diren pertsonaia bitxiaren arteko harremanak erakusten ditu. Hor dira elkar galdu duten amona eta biloba, egunkari-saltzailea, lapurra, gazte musikazalea, agurea, ustezko itsua eta dendetan ibiltzetik datozen bi emakume. Elkarriketak eta egoerak bi-ziak eta barregarriak dira, pertsonaien sartu-irtenak zentzuzkoak dira eta antzerkia egiteko gogo hutsagatik planteatutako obra da. Ezer ez irakasteko asmorik ez ezik, gaur egun nekez onartzen den amaiera horietako bat du, non lapurra baita etekin handiena ateratzen duena.

Antzerkiari buru-belarri eta zenez emandako egile berri baten aurrean gaudela

azpimarratuta, liburuaren edizioari buruzko ohar batzuk egin nahi nituzke irakurlearen aldetik; izan ere, nahiz eta azken helburutzat taularatuak izatea duten obrak diren, inprimatuak eta liburu gisa heldu dira merkatara. Bada testuek, alde horretatik, orrazketa handi samar baten beharra dutela uste dut. Ez dakit ardura egilearena den, argitaldariarena, ala norena; kontua da, erabat ahozkoari begira prestatutako lanak izanik, idazketan oinarritzekoak diren arau batzuk ez direla betetzen, eta horrek izugarri oztopatzen du irakurketa.

Manu Lopez Gaseni

#### GORPUTZ OSORAKO POEMAK

Juan Kruz Igerabide  
Ilustratzailea: Elena Odiozola  
*Aizkorri, Bilbo, 2005*

Honelaxe dio Juan Kruz Igerabideren liburu honen atariko poemaren hastapenak gorputzaz ari delarik:

Nire gorputza poz bat da  
nahi baduzu hurbildu  
haragizko irribarra da  
nahi baduzu ukitu,  
besarkada bat arropaz estalia  
nahi baduzu aurkitu. [ . . . ]

Ondotik, gorputzaren osotasunetik atalera jauzi egitean hasten da benetako ibilbidea, idazleak soinaren puzzlearen zatiak banan-banan aletzean. Liburu eder honetan atal guztiei eskaini die poema bana, buruari, ileari, belarrii, bekokiari, eta horrela, gorputzean behera eta behera eginez, sorbaldeetara iritsi da, eta bizkarrera gero, eta orpoetara azkenean. Irakurleak goitik behera zeharkatuko ditu giza-gorputzaren zoko-moko guztiak berrogeita zazpi poemaz osatutako bidaia poetiko honetan. Pertsona baten gorputzean bistan-bistan ditugun atalera ez ezik hezurrek eta muskuluek estalita dauden bestelakoetara ere barruratuko da amaiera aldean, bihurtuz



beterik dagoen garunera, kasu, eta kilkerra kantari duen gibelerara, eta babak diruditen giltzurrunetara, besteak beste. Bihotzaz eta odolaz mintzo diren poemetan izango du bukaera irakurle bidaiariak.

*Begi-niniaren poemak, Egun osorako poemak, Munduko ibaien poemak* eta, oraingoan, gizakiok munduratzan dugun lehen errealitateaz dihardu idazleak hizpide duan *Gorputz osorako poemak* liburu honetan, giza-gorputzaz, alegia. Berriro ere, Juan Kruzen esku fina agerian eta bere begiek berez hartzen dutenetik haratago hedatzen den ikusmira zabala mintzora egoki-egoki ekarrita, sotiltasunez eta xalotasunez. Igerabidek berriro ere erakutsi digu, edozein gauza –ibaiak, gorputza. . . – begi poetikoez bistara daitekeela, eta irudimenez jorratzen bada erakargarri eta gogoko egin daitekeela, irakurlearen arretan atximur egiteraino.

Ene iritiz, poemok ozenki irakurtzean hartzen dute berebiziko indarra, erritmoak eta lantzen diren atalei loturiko onomatopieiek eta adierazpen hotsek mugimendu bizia eragiten dute eta hitz poetikoaz lortutako irudiek zirrara estetikoa. Hainbatetan, nahi gabe, musika entzungo du irakurleak poemok irakurtzean, kantatzeko oso aproposak baitira batzuk-batzuk, nork

bere melodia egokitzea besterik ez dute falta. Jolasa eta umorea ere euskal tradizio herrikoari uztartzen zaizkio usu, denak ala denak ere eskutik helduta baletoz bezala. Igarkizunen tankera olgetaria ere antzeman dut tarteka.

Ezin aipatzeke utzi Elena Odriozolak bere ohiko ikutu xumeaz olerkien haritik sortutako irudi dinamiko, jostagarri eta koloretsuak, eta bitxi-bitxia 62 eta 63 orri-aldeetan giza-irudi simetriez lortutako efektu berezi eta irudimentsua.

Xabier Olaso

### KAFKA Y LA MUÑECA VIAJERA

Jordi Sierra i Fabra

Ilustratzailea: PEP MONTSERRAT

*Siruela*, 2006

#### Kafka eta haur literatura

Jordi Sierra i Fabra (Bartzelona, 1947) idazle emankorrek tankera askotako liburuak idatzi ditu: poesia eta narratiba, biografia eta saiakera, heldu, gazte eta haurrentzat. Zaila da Sierra i Fabraren ibilbide literarioari jarraitzea, urtero hainbeste liburu argitaratuta, eta idazlea bera hor ibiltzen da marra hauskor baten gainean oreka zailean: marraren alde batean, behingoz eskuratu nahi duen idazle kontsokratu-errespetatuaren estatusa dago; beste aldean, berriz, gaurkotasan-gaien harapatzaile izaera, literarioak izan nahi duten istorioen itxuran berehala argitaratzeko.

Ezin esan daiteke oraingo gaurkotasaneko gaia denik, duela 80 urte baino gehiago gertatutako pasadizo baten gainean eraikita dagoenez gero, baina istorio-ehiztari gisa duen abileziaren erakusgarri aproposa da. Gainera, *Kafka y la muñeca viajera* idazlearen ohiko liburuen gainetik dagoela, bereziki zaindutako emaitza dela iruditu zait.

Pasadizioa ezagutzen ez dutenentzat, hona laburpen bat: 1923an, Franz Kafka tuberkulosiak jota eta bere bizialdiaren azken hilabeteetan zegoela, Berlinen bizi



zen Dora Dymant-ekin. Gustuko omen zuen hiriko Steglitz parkean zehar ibilalditxoak egitea, eta haietako batean, negar kontsolaezinean ziharduen neskato bat ikusi zuen. Zer gertatzen ote zitzaion galdetu zionean, neskatoak panpina galdua zuela erantzun zion. Negar egiteari uzten ez zionez, Kafkak esan zion panpina hura ez zegoela galduta, baizik eta bidaia bat egitera joana zela. Neskak nola ote zekien galdetu ziolarik, panpinak neskari gutun bat bidali ziolako zekiela erantzun zion idazleak. Izan ere, bera, Franz Kafka, zer eta panpinen postaria zen. Hitzordua jarri zuten, eta hurrengo egunean agindutako gutuna eraman zion, gauean idatzi ostean. Neskatoa oso konforme geratu ez, eta azkenean harreman hark hiru aste iraun zuen, hain zuzen, Kafkak istorioa itxiko zuen gutuna asmatu zuen arte: panpina hura ezkondu zen, zoriontsu bizi zen, eta ez zen itzuliko.

Horraino, Dymant-en egunkarietatik jakin ahal izan zen pasadizo hunkigarria; gutun haiek, izan ere, ez baitira orain artean azaldu. Hortik aurrera, Sierra i Fabraren lana hori guztia berreraikitzea izan da: pertsonaien izenak eta bestelako xehetasunak, gutun haiek idazteko Kafkak bizi izan bide zuen

sukar sortzailea, panpinaren ibilbidea munduan zehar eta are gutun haietako pasarte asko ere bai. Horretarako, txekiar idazlearen ikuspuntuan kokatu da eta, bikain idatzitako istorio erromantiko samarrarekin batera, Kafkaren biografiako datuak eskaintzen ditu han-hemenka: haren gaixotasunaren berri, idatzita zituen obrak, Max Brod adiskideari emandako enkargua, aurretik izandako emazteak... Osotasunak oso zapore ona uzten dio irakurleari; esan bezala, ezohiko testu baten aurrean egoteko sentsazioa (nahiz eta, zoritxarrez, ilustrazio ilunek ez dioten sentsazio horri gehiegi laguntzen).

Halabeharrez, Paul Auster-ek pasadizo beraren berri ematen du *Brooklyngo erokeriak* liburuan, eta bi idazleek antzeko gogoeta egiten dute: ondo idatzitako fikzioek indar sendatzaile izan dezaketelakoa. Sierra i Fabrak Kafkak idazten jarri aurretik ustez izandako sentipenen berri ematen du: «*Si no cumplía con su palabra y acudía a la cita del día siguiente sin la carta prometida, Elsi jamás volvería a creer en la naturaleza humana. Estaba en juego una esperanza. Lo más sagrado de la vida. Franz Kafka sintió el hormigueo en sus manos [...] Era escritor. Pero nunca había escrito la carta de una muñeca viajera a la niña que había sido su dueña hasta el momento de separarse*» (34. or.).

Austerrek, berriz, neskatoaren arinduraren berri ematen du: «*neskatoak ez dio jada mira egiten panpinari [...] Kafkak zerbait eman dio ordezkoi [...] Badu orain istorio bat, eta baldin eta pertsona batek istorio baten barnean bizitzeko adina zorte on badu, alegiazko mundu batean bizitzeko adina, kito mundu honetako saminak*» (181. or.).

Ederki idatzi ez ezik ederki argitaratutako liburu honek lehen aipatutako marraren alderdi errespetagarrian kokatzen du Sierra i Fabra. Bide horri eustea opa diot.

Manu Lopez Gaseni



**BEGIRA, BEGIRA. TRADIZIOAREN LEIHOTIK**

Askoren artean

Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA  
*Elkar, Donostia, 2006*

**Tradizioa lantegi**

«Dona dona» bilduma bosgarren zenbakira iritsita heldutasun-aroan kokatu dela esan daiteke, *Axa mixa zilarra* (2000) harekin zabaldu zenez geroztik. Tradizioari ikuspegi desberdinetatik begiratzen dioten obrek osatzen dute bilduma: igarkizunak, ipuinak, poesia, hitz-jolasak, kantak. . .

*Begira, begira* honetan ahozketasunak eskaintzen dituen baliabide eta emaitza guztiak bildu nahi izan dira, zortzi idazle ezagunek birsortuak: Anjel Lertxundi, Joxan Ormazabal, Juan Kruz Igerabide, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano, Jesus Mari Olaizola «Txiliku», Mitxel Murua eta Kirmen Uribe.

Oraingo honetan, gainera, ez nuke irudigilearen aipamena amaierarako utzi nahi: Elena Odriozolak liburuko pieza bakoitzaren interpretazio pertsonala egin du irudiz irudi, liburuari arintasun koloretsu berezia emanez.

Liburuko edukietan sartuta, pieza bertsi-fikatuetatik hasiko naiz. Ahozko tradizioaren baliabide ia guztiak agertzen dira horien artean: Joxan Ormazabalek eta Txilikuk

hain gustuko dituzten aliterazio eta onomatopeiazko jolasak, Lertxundik egindako letra gurpilak, Igerabideren eskutik datozen zenbaki jolasak eta limerick-ak, Miren Agur Meaberen koplak, Txilikuren igarkizun itxurako poemak, Mitxel Muruaren kateatzeak, hainbat animaliak gure tradizioan izandako oihartzunez osatutako poema Harkaitz Canoren eskutik, edo Kirmen Uriberen poema anaforikoa. Irakurleari duela urte batzuk Galtzagorri Elkartek antolatutako «Haur Poesiaren Aretoa» delakoaren inguruan liburu honetako kide batzuen parte hartzearekin argitaratu ziren liburuxka eta CD-a etorri zaizkio gogora.

Ipuinei dagokienez, berriz, itsas ipuinen tradizioan txertatuta Miren Agur Meabek egindako lana azpimarratu nahi nuke: emakumezkoen leinu batek gidatutako «Olatuen ahotsa» izeneko zikloa aparta iruditu zait, edukiz zein formaz, eta irakurri ahala Gustavo Martín Garzo-ren *Maitagarrien hiru ipuin* izeneko liburuz gogoratu naiz (halako subjektiboak dira oroimen literarioaren gorabeherak). Horieta gain, bertsoetan bezala Anjel Lertxundik bokalen jolasarekin egindako ipuina edo pertsonaien izen-zaletasunak oihartzun berean doazenekoa («Familia xelebrea»); edo Atxagaren beste hura gogorarazten duen Mitxel Muruaren «Ipuin bat nola idatzi (edo hobeto: ipuin bat nola idatzi gogorik gabe)» kontakizun metaliterarioa. Beste batzuetan, ipuin edo pasadizo ezagunen berridazketa gaurkotuak topatu ditugu, hala nola Kirmen Uribek «Jaiotza» izenekoan egindakoa pasadizo edo txiste baten gainean; edo Txilikuk «Bi antxumeak» delakora ekarritako oihartzunak.

Hirugarren talde batean, azkenik, ipuin eta poemaren arteko hibridazioak aipatuko ditut, horiek ere lorpen ederrak direlako. Esaterako, «Non dago kilker kantaria?» Txilikuren kontakizun laburra, edo Mitxel Muruaren «Bakoitza bere zoroak bizi du» kateatzea baliatzen duen ipuina; Anjel Lertxundiren «Oilarrak lorik ezin egin»

elkarrizketa; edo Ormazabalen «Marrubiak hamabi» izenekoa.

Laburbilduz, Rodari berrien gisara tradizioa berritzera etorritako zortzi idazleren arteko liburuak gozameneko irakurketa eskaintzen du, isilik zein ozenki, bakarka zein taldeka, hasieratik amaierara zein era aleatorioan hartuta.

Manu Lopez Gaseni

**MATXINSALTOEN BELARRIAK**

Unai Elorriaga

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

*Elkar, Donostia, 2006*

**Intra-testuartekotasuna**


Unai Elorriaga (Algorta, 1973) idazleak gauza garrantzitsuak egin ditu bere idazle-bizialdi laburrean: *SPrako tranbia* izeneko eleberria plazaratu zuen 2001ean, eta horri esker Espainiako Sari Nazionala eskuratu zuen hurrengo urtean, eta bi eleberrigehiago argitaratu ditu orain artean (*Van't Hoffen ilea eta Vredaman*). Oraingoan, berriz, *Matxinsaltoen belarriak* haurrentzako narrazio-liburuarekin aurkeztu zaigu.

Liburuko protagonista eta narratzailea izeba-osaben etxera joan da, itxuraz uda pasatzera, eta egonaldi horren berri ematen digu: lagunekin egindako jolasak, osabari entzundako istorioak eta, batez ere, lñes lehengusina entomologoarekin intsektu mota guztiei buruz izandako berriketak. Baina, pixkanaka, Tomas umearen hitz xaloen artean beste errealtate batez jabetzen hasiko da irakurlea: Tomas ez dago han uda pasan, aita gaixorik eta erietxean dagoelako baizik. Argumentu hori darabilten beste hainbat idazlan etorri zaizkio burura irakurleari. Baina irakurketak aurrera egin ahala ohartzen da, koska bat estuago, aita ez dela sendatuko, aita hil egingo dela; eta aita hil egin da.

Elorriagak gai arantzatsua aukeratu du

estreinako haur libururako. Eta niri garai bateko aldarriak, errealiterik gordinenak ere islatu eta umei erakusteko temati, etorri zaizkit gogora: «Ipuin hauek egiazkoak dira. Pertsonai eguneroko harremanetatik sortzen zaizkien arazoen berri ematen digute [...] eta egiazkoak direnez gero ez dute amaiera zoriontsurik izaten». Ursula Wölfel idazle alemanaren hitzak ziren, 1970ean idatziak. Hala ere, oso haur liburu gutxi idatzi dira euskaraz heriotzari buruz; tabu nabarmena izan da. Eta Elorriagaren proposamenak gaia hantemenkako pintzelkada arin eta zehatzez lantzen badu ere, ez du esperantzarako zirrikiturik uzten, erabatekoa du amaiera: «Eta orain badakit ez garela Madagaskarrera joango. Ez garela inora joango. Aitarekin. Igeri egitera ere ez».

Honaino iritsirik, datu esanguratsu bat agerian jartzeko tenorea da: *Matxinsaltoen belarriak* hau egilearen Vredaman hirugarren eleberraren «hustuketaren» ondorioa da, hain zuzen ere Tomas haurra narratzaile zuten pasarteen bilduma egokitu gabea, zeuden hartan aldatuak. Espanturik batere gabe esan dut esandakoa. Gaitzespen edo txalorik gabe. Aitortu behar dut jokabide bitxia iruditu zaidala, antzeko prozedurak ezagutzen nituen arren (sonatuenak, beharbada, J. Swiften Gulliverren bidaiak delakoaren hustuketa haur tradizioetan inoiz agertutako ezaugarrietan oinarriturik –erraldioen eta nanoen munduak–, «ad usum delphini» bihurtzeko testu-garbiketa eginez; edo L. Carrollek Aliceren abenturak lurralde miresgarritik Alizia haurrentzat delakora egindakoa, hartzaile berrira egokitzeo estrategia jakin batzuk aplikatuz); baina oraingo hau berezia iruditu zait, aurreko paragrafoan aipatutako ezaugarri horiek, berez, helduentzat zeudelako pentsatuta eta, hortaz, liburu berria haurrei zuzentzeko arrazoi bakarra haur baten ahotsa egotea izan bide baita. Testuak jasotako aldaketa bakarra, hori ere esanguratsua, hogeita lau atal laburretan banatzea izan da. Ezbairik gabe, Gerard Genettek jokabide honen berri izango balu, bere Palimpsestes famatua berdiradzea erabakiko luke.



Azterketarekin aurrera eginez, oraingoan eman zaion forma berriaren aldetik, *Matxinsaltoen belarriak* testua minimalismoaren korrontean sartzen da bete-betean: pertsonaia nagusia da aldi berean narratzailea, eta bere inpresioak kontatzera mugatzen da sarritan, tarteka samurtasun handiko pasarte bidez; bestalde, hari narratibo bat egon arren, istorioko atalek autonomia maila handia dute, eta batzuetan ipuin-bilduma baten aurrean gaudela ematen du. Bestela esanda, Mariasun Landak Iholdi obrarekin zabaldu, eta J.K. Igerabidek *Bota ura!*, J. Penaderek *Iluntzero elkarrekin* edo P. Zubizarretak *Gaspar eta zuhaitzak* idazlanekin jorratutako tradizio laburrean kokatzen da.

Ez naiz estiloaren azterketan gehiegi luzatuko, Elorriagaren helduentzako lanez esandakoa ez errepikatzearen. Hala ere, iruditu zait ezaugarri horietako batzuk bigundu egin direla, jatorrian jada, Tomas narratzaile gaztearen ahotsean. Horietako bat, ukitu surrealistik edo logikarik gabeko jolasak egiteko joera, nolabaiteko logikaz jantzi du haur narratzailearen ahotan sinesgarriak izateko. Adibidez, esaten duenean «Horregatik dira intsektuak hain txikiak, zaharrak direlako» (11. or.), horren azalpen

logikoa dator segidan. Eta gauza bera hain ohikoak dituen zenbaki-jolasak egitean: «Ez dakit seguru guztira zenbat libelula urdin egongo den munduan, baina kalkulatu dut zazpi edo bederlatzi egongo direla mundu osoan» (21. or.), ondoren azaldua.

Baina beharbada testu hau haurrei proposatzera eraman duen arrazoia bera (haur-narratzailea izatea) izan da, nire ustez, alderdi ahulnetako bat: umearen adina zehatzen ez den arren, zenbait desoreka sumatzen da erabilitako hiztegiaren, batzuetan oso oinarrizkoa izatetik oso jasoa izatera pasatzen baita. Bestalde, aditza aurreratzeko joera («Hori da errekor handi bat nik daukadana», 5) ezin da haur hizkeraren ezaugarritzat hartu, helduekin berdin-berdin jokatzeko duelako («Merkurioa da gauza bat kuriozosa», *SPrako tranbia*, 79). Kontuak kontu, haurraren hizkera ez da oso sinesgarria gertatzen, eta akaso kanpoko narratzaile fokalizatu baten ahotan jarrita bestela funtzionatuko zuen.

Laburbilduz, Elorriagaren lehen haurliburu honek uzten duen inpresio orokorra nahasia da: ohiko ofizio ona erakusten badu ere, haur literaturaren generoari ez dio neurria behar bezala hartu, testuak batetik bestera aldatzearekin batera izan dutena baino egokitzapen handiagoa eskatzen baitzuten, berriro irakurle honen ikuspuntutik.

Manu Lopez Gaseni

K HERRIALDEA

Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

SM, Madril, 2007

### Ipuin tradizionalen bidetik

Bi errege: Alexandro eta Raimundo; bi erresuma: K eta T; bi ezaugarri: kakotxak eta torlojuak. Erabaki bat:

«Bidaia luze bat egin behar dut. Auzo dugun T herrialdera joango naiz, aspaldiko ezinikusiak ahaztuta. Gure artisauek egiten dituzten kakotx zoragarriak erakutsi nahi dizkiet, ea erosten dizkiguten, edo, bestela, ea truke bat egiten dugun haien torlojurik onenekin, ondo etorriko zaizkigu-eta gure makina eta tresnetarako».

Baina Alexandrok arreba bat izan, Paulova, negozio kontuetan nebaz fidatu ez, eta harekin bidaian joatea erabakiko duena, arrazoiz erabaki ere, zeren Alexandro liluratu egingo baita torlojuen erresuman, eta, zer ikusi, hori erosi nahi izango du, batez ere kristalezko esfera bat, begiratzeko dionaren gorputza barrutik erakusten duena. Eta apostu bat: esfera hori baietz hobetu, Paulovak, eta gorputza barrutik ikustez gain, baietz gaixotasunei igarri; eta dirutan ere apostu handia, handiegia agian:


«Neba sinatzen ari den guztiaren halako bi...—. Ondasun gehiago daukat nik berak baino, hobeto administratu baitut nire dotea. Galtzen badut, nire erresumako pertsonarik behartsuena izango naiz. Han, txiroenak ere badu non bizi. Hori ez zait gertatuko niri».

Orduan agertuko zaizkigu Paulovari lagun-duko dioten Martin ile apaintzailea eta Teo eta Leo artisau xelebreak, eta orduan hartuko du indarra historiak: funtsezko protagonistak lortuko al du nebaren nahigabea arintzea, lortuko al du erresuma salbatzea?:

«Hori guztia ulertarazi nahi zion Alexandrori; alegia, K herrialdean bazeukatela bizimodua ateratzeko adina, ez zutela lilurak itsutzen utzi behar, beharrezko gauzak eta apaingarriak ondo bereizi behar zirela; bestela, ondo zihoan herrialdea hankaz gora iraultzeko arriskua zegoen».

K herrialdea narrazioarekin iazko Bapore

10 +



saria eskuratu zuen Juan Kruz Igerabidek eta nola-halako ipuin tradizional berritu bat eskaini zigun, baina halakoetan ohikoak ez diren kontzeptuak sartuz: kakotxak, torlojuak, negozioak, teknologia... Argi dago, gainera, nebaren itsukeriaren aurrean eta T erresumako erregearen naguskeriaren aurrean, neskak zentzuna eta ordena ipini nahi duela, nahiz eta horretarako bi artisauen erokeria ere beharrezkoa izango duen; eta argi dago ez dela hutsaren hurrengoa egileak emakumea aukeratu izana auzi hori konpontzeko eta erresumara aurrerabidea ekartzeko—gaur egungo prototipotik urrun, bestalde—, modu horretan ere nola-hala berrituz ipuin tradizional askoren eskema. Alde horretatik, idazleak interpretazio zabaleko irakurketa eskaini digu oraingoan ere.

Argumentua ondo eramana dago, ondo kontatua, baina batzuetan badirudi narrazioa xehetasunetan, sinesgarritasunean eta une dramatikoetan sakondu gabe geratzen dela, berritze horretan ipuin tradizionalen indarra ahul samar geratu izan balitzaio bezala. Bestalde, Jokin Mitxelenaren ilustrazio zirriborratuak, grisaren

ñabarduretan emanak zaizkigu, baina biziak dira eta badute keinurik, adibidez eszenategi berean koadroetan ageri diren imajina aldaketa bihurriak, ikusi bestela 70. eta 80. orrialdeen arteko aldea (eta orain ere ezin ahaztu, duela urte gutxi, Xabier Etxanizen *Geure ipuinak* herri ipuinen antologian marrazkilarik berak egindako lana).

Laura Sagastume

CALVINA

Carlo Frabetti

*El Barco de Vapor, SM, Madril, 2007*


### Itxuraz beste

Carlo Frabetti eskarmentu handiko idazle italiarrak gazteentzako «El Barco de Vapor» saria jaso berri du *Calvina* izeneko liburu bitxi honekin. Heldu zein gazteentzako liburu askoren egilea da, eta bat edo beste euskarara itzulia du (*Gillermoren liburu*a, adibidez); horretaz gain, matematikaria eta telebistako gidoigilea da.

Lucrecio lapurra etxe abandonatu batean sartzen da etekin bila, baina ezer lapurtu beharrean, han bizi den ume burusoil ezohikoak «lapurtua» edo aldi batez aitatatzat hartua izango da. Hortik aurrera, istorioa oso gutxinaka garatuko da kapitulu laburren bidez, ezkutaketan jolasten arituko balitz bezala. Umeak aita berriarekin egiten duen lehen irteerak istorio osoaren ispilu antzean funtzionatzen du: «*manicomio biblioteca*» batera doaz, eta han azaltzen diren pertsonaiak gaixo literarioak direla esan daiteke. Batzuek idazle jakin bat direla uste dute, beste batzuek pertsonaia literario jakin bat direla, eta obra bat direla uste dutenak ere badira. Kixotez geroz, ero literarioen baliabidea ez da berria, eta euskal idazleek ere baliatu dute inoiz: berehala burura datozkidanak Felipe Juaristiren *Arinago duk haizea*, *Absalon*, edo Anjel Lertxundiren *Argizariaren egunak* eleberrietakoak dira. Hala ere, *Calvina* nako hauek gazte literaturaren eremukoak direlako agian, ikuspegia desberdina da: ez dira literaturak gaixotutako pertsonaiak, literaturaren bidez sendatzea espero duten gaixoak baizik:

«*Nuestros pacientes, como de entrada suelen estar más lejos de la realidad que cualquier libro, incluso mientras leen se acercan al mundo real [...] El tratamiento es largo, pero algunos acaban curándose del todo... como yo*» (50. or).

Gero, literaturaren funtzioei buruzko ohar didaktiko ez hain interesgarri batzuk tartekatzen dira, baina kapitulu hauetan garbi azaltzen da egileak jolas metaliterari-



oak ez ezik, jolas metalinguistikoak ere egin nahi izan dituela, *Alizia* Carrollen liburuko antzera. Amaitu ere halaxe amaitzen da liburu, hizkuntzaren konbentzioei buruzko elkarrizketa batekin:

«—¿Puedo hacer una última pregunta? —dijo Lucrecio al cabo de unos minutos.

—¿Puedes? —replicó *Calvina* con una sonrisa burlona.

—Claro que puedo.

—Entonces, ¿por qué me preguntas si puedes?

*Lucrecio respiró hondo, contó hasta diez y dijo:*

—¿Puedo preguntarte si eres niño o niña?

—Por supuesto.

—¿Y por qué no me lo dices? —insistió *Lucrecio* tras una pausa.

—Porque no me has preguntado si soy niño o niña. Me has preguntado si puedes preguntármelo...» (121. or).

Hortik aurrera, interesgunea etxeko familiaren misterioetara aldatzen da: jaki-gordailuan izotzuta agertzen den ama, familiak poliziaburuarekin duen harremana, sakonera bikoitzeko armairua... .

Liburu honetan, bistan denez, anbiguitatea

da nagusi, eta ezer ez da dirudiena: ez dakigu garbi ume protagonista *Calvina* ala *Calvina* den, haren ama hilda ala bizirik dagoen, txakur-otsoa baketsua ala mehatxagarria den... Hala ere, kontrakoa dirudien arren, *Calvina* ez da fantasia generoko liburu eta, deus ex machina itxurako «*El epílogo prólogo*» azken kapituluko azalpenak irakurrita, istorioko mutur aske guztiek koherentzia «logikoa», edo behintzat ulergarria, hartzen dute testuinguru errealista batean.

*Calvina*, argumentu aldetik korapilatsua bada ere, irakurterraza da: kapituluak eta testua bera ere laburrak dira, zailtasun berezirik gabeko hizkera du, eta umorea neurri egokian erabilia dago. Aukera ona, beraz, denbora-pasako irakurgai gisa erabiltzeko.

Manu Lopez Gaseni

### DIAMANTEZKO MIRARIA

Joxemari Urteaga


Ilustratzailea: KAIET BENGOTXEA

*Elkar, Donostia, 2006*

### Harribitxia

XVIII. mende hasieran kokatutako nobela historiko eder bat idatzi du Joxemari Urteagak (Lazkao, 1961), irakurgai gozagarria izateko osagai guztiak dituena: abentura, misterioa, bidaia, amodioa... Ohi bezala, liburu irakurri ostean irakurri ditut kontrazalean datozen hitzok eta, ohi ez bezala, onartu beharra daukat ados nagoela. Hala ere, ezer baino lehen, aitortu beharrean nago idazlearen entzutea, izan, banuela, baina haren *Ordain zor nizun* (Elkar) helduentzako misteriozko nobela irakurri gabe nengoela, eta lan honekin piztu egin zaidala hura irakurtzeko gogo.

Kontrazaleko testuak dioen bezala, istorioa XVIII. mendean kokatua dago, Ondarroan hasi, Durangora lekualdatu eta Galiziaraino luzatzen den antzinako road movie moduko bat balitz bezala, Done Jakueren bide bertsutik luzatu ere. Narrazioa bi planotan garatua dago: alde batetik, alaba



gaixoarekin –Agnes– aitak –Martin Aldia–koa– orainaldian daukan harremana dago eta, beste aldetik, haren gaixoaldia arintzeko kontaktzen duen historia bera. Eta horra hor abentura, misterioa, bidaia, amodioa... eta itsas giroa, ia alkimiaren inguruan osatzen den beigargileen mundu misteriotsua, eta adiskidetasuna. Hori guztia, dokumentazio lan eskergari esker inondik ere, eta oso modu sinesgarrian emana, orduko giroa hari narratiboan bikain txertatuz. Beharbada, nobela amaitutakoan, irudipena izan dezaket istorioa istorioari lotuz, tarteka narrazioak indarra galdu duela, eta alabarekiko harremanak aukera gehiago ematen ziola, edota Pantxike zaintzailearekin narrazioaileak izan zezakeenak, edota Margarita emaztearekiko bizipenak, baina hori, esan bezala, irudipen mailan baino ez diot.

Istorio ederra, beraz, oso ederki kontatua. Eta aitorenekin segiturik, aitortu beharra daukat aspaldian ez nuela hainbeste gozatzen gazte literatur lan batekin, eta, batik batik, gestiloarekin. Batzuetan landuegia badirudi ere, gozo sartzen da, beigargileen eta itsas lexikoa egoki sartua dago, galizierazko adierazpen laburrek are sinesgarriago egiten dute eta, horren ondorioz, harribitxi bat baino gehiago eskaintzen digu:

12 +

«Ba omen zen, Ajarel inguruan, igarlez eta aztiz inguratutako boteretsu bat. Behin, gauza txarren bat iragarri zion azti bati, heriotza zigorra ezarri zion boteretsu honek. Lepotik zintzilikatzeraz zermatela, hauxe esan ei zuen, inguruko guztiek entzuteko moduan: “Iragarpen berri bat izan dut gaur gauzez: jauna hilko den bezperan hilko naiz ni”. Berehala zabaldu zen iragarpena eta berehala heldu zen jaunaren belarrietara. Boteretsuak ez zuen aske utzi, kartzelan sartu zuen. Gaitz erdi, bizia salbatua zuen jada igarleak».

Irudiak direla eta, zalantzak piztu zaizkit. Helduentzat ere egokia izan daitekeen nobela hau apaintzen duten ilustrazioak, paisaietan ez besteetan, infantil samarrak ez ote diren iruditzen zait, 171. orrialdekoa batik bat. Aitzitik, nire ustez Iñaki Gozalo Erro «Wentxi»ren azala guztiz bat dator narrazioaren tonuarekin.

Edozein modutan, izenburuak berak dioen bezala, urri eta eskas samar daukagun gazte literaturan diamantezko miraria dugu lan hau, aurkikuntza bat, idazlearen aurreko lana irakurtzera garamatzana eta, agian, bera halako lan gehiago idaztera eraman dezakeena.

Laura Sagastume

#### TXORIA TXORI

Antton Kazabon

Ilustratzailea: ARRASTALU

Ibaizabal, Bilbo, 2006

#### Heriotza: izarrak eta enarak

Azaroaren bata hurbiltzen ari zaigun honetan, Domu santu edo Omiasainduaz gogoraturik, udan zehar egindako irakurketak etorri zaizkit gogora, eta Antton Kazabonen *Txoria txori* ipuinari Joxerra Garziak egindako hitzaurrea bereziki; hartan, herri ipuinetan heriotza lehen planoan egon izan dela nabarmendu ostean, sarreragileak honela dio:

«Baina gauzak errotik aldatu dira aspaldi honetan. Orain, antza denez, biziaren alde



koloretsua bakarrik erakutsi behar omen zaizue zu bezalako irakurle gaztetxoei. Magia eta fantasia bai, baina heriotza bezalako kontu itsusirik inola ere ez: kalte egingo omen lizukete horrelakoek».

Eta udako irakurketa haiek etorri zaizkit hain zuzen ere, harrigarria bada ere, hainbat liburuk heriotza ardatz dutelako: Antton Kazabonen aurreko liburuaz gain, egile beraren *Elurrezko pilotak* (+6) ipuintxoak (haur baten desagerketarekin eta Olentzerori buruzko halako interpretazio berri –ez kristau– batekin); Iñaki Zubeldiaren *Ama!* (+6) ipuina (minbiziak eramandako amaren galerarekin, eta izarren baliabide funtzional ezagunarekin:

«Nire gorputza hemen egongo ez bada ere, ni neu gorantz joango naiz, ortzira, eta zuek pentsatu hor goian dauden milaka izar horietako bat naizela ni, horko politena eta distiratsuen. Behar duzuenean, zerura begiratu eta ni zuei laguntzeko prest edukiko nauzeu...»; edota Mitxel Muruaren *Pello Telleriaren amets eroak* (+6) ipuintxoak (mutiko baten desagerketa-heriotzaz ematen zaigun bertsio dibertigarri iradokitzaile-egiarekin eta, edozein kasutan, originalarekin).

Memorian arakatuz, Michaelene Mundyren *Quando estoy triste~Ante la pérdida de un ser querido* liburuxka dibulgatiboa ere etorri zait gogora, edo haur eta gazte literaturako

beste hainbat lan: Karlos Linazasororen *Bestiarioa-Hilerrikoak*; Pello Añorgaren *Adio-adio*; Mariasun Landaren *Aitonaren txalupan*, *Amona*, *zure Iholdi* edo *Haginak eta hilobiak*. Eta nik uste dut gure gela edo etxeko haurren arabera aukeratu beharko dugula ipuin bat edo beste, argibide ezinbeste poetiko hau edo bestea.

Antton Kazabonen liburua testuinguru honetan kokatu beharra dago. Istorioa hasieratik da ausarta, izan ere guraso edo aitona-amonetako bat hil beharrean gaztetxoa bera hiltzen da. Baina, beharbada, balio horretan du hutsunea liburuak, beharbada istorioa azal samarretik kontatzen zaigulako, zertzelada gutxi batzuekin. Giharretako atrofia du 12 urteko Miliak, eta gerriko eta kortse bereziak behar ditu, eta Pirriltxo izeneko aulki gurpilduna eta, gurasoez gain, bi laguntzaile.

Lehen pertsonan kontatuta dago, baina Miliaren eta amaren ikuspegietatik; amak txoriei buruzko hainbat istorio kontatuko dizkio alabari, hainbat paralelismo poetiko eskaini hari eta irakurleari: urretxindorra, zozoa, hegatzabala eta, batez ere, elorri txoria. Arima, horrenbestez, izarren ordezen irudiarekin agertuko zaigu eta, alderaketa horrekin lotuta, Miliak beste ezintasun bat erakutsiko du: berak ezin du kantatu, harik eta Joxerra Garziak esplizitutako *Mar adentro* film hartan bezala, itsasoan azken kantua egingo duen arte. Beharbada horixe izan daiteke liburu honen bigarren dohaina: amaiera gordina ez baztertzeara, baina ustekabearen eta modu poetikoan ematea.

Arrastaluren ilustrazio zuri-beltzekoak, azkenik, funtzionalak dira, ordenagailuz koloreztatuak, baina agian liburu honek poetikoagoak behar zituen eta lauki karrietuetara ez hain mugatuak, eta horixe da beharbada gai honek eskatzen zuena, maila iradokitzailea gehiago zabaltzea.

Laura Sagastume

POL ETA VAL

Josetxo Orueta

Itzultzailea: JOXEAN SAGASTIZABAL

Ilustratzailea: ERNESTO MURILLO, SIMÓNIDES  
*Pamiela, Iruñea, 2006*

### Flipadura hutsa

Josetxo Oruetaren *Ortziren hortza* nobela historikoa irakurria genuen, eta Mikelot protagonista gaztearen bitartez Orreagako guda mitikoaren kontaketa berri bat eskaini zigun idazle bilbotar hasiberriak. Behin, Manu Lopez Gasenik honako hau idatzi zuen lan hari buruz: «Kontakizunaren berezko epikotasunarekin batera, literatura maila handiko pasarte liriko hunkigarriak agertzen dira»; edota:

«Emaizta biribila izateaz gain, gaiaren behin betiko errebisiotzat jo daiteke: berdin erabil daiteke denbora-pasarako irakurgai entretenigarri gisa, zein historiako irakasgaien lagungarri legez».

Oraingoan, baina, idazlea guztiz narrazio desberdin batekin datorkigu, eta horretaz jabetzeko aski da hasierako oharra (Kontuz: ez erakutsi liburu hau gurasoei) edo lehen lerroak irakurtzea:

«Mutiko normala naiz, osasuntsua: denetik jaten dut (gustatuz gero), sarri-sarri aritzen naiz kirolean eta masturbazioan, eta alkoholik sekula ez dut edaten, merkea ez bada».

*Ortziren hortza* hark, esan bezala, ez du zerikusirik *Pol eta Val* honekin: bi mutil, neska katxarro perfektuekin txora-txora eginda, ustezko istripu bat eta heriotza, eta neskatxen trafikoa, eta irakasle bat saltsan... Historia istorio bilakatu da, komediak epika bazterrarazi du, eta komikiaren eta zinemaren eragin handia nabari da kontaketa zehar. Horregatik guztiagatik, Iban Zalduren *Kea ur gainean* bezala, eta batez ere, Sustrai Colinaren *H gabe* narrazioez oroitua gara.

Istorioa eroa da, ganberroa, eta halakoxe hizkera du. Eta *Ortziren hortza* hartan bezala, Joxean Sagastizabal arduratu da



itzulpena egiteaz. Narrazioa koherentea da alde horretatik ere, eta argi dago idazlearen eta itzultzailearen arteko konplizitatea edo sintonia. Sagastizabalek bere *Zorotariko hiztegia* hartatik hartuak diruditen hitzak erabili ditu: lagunotski, muturreroan aritu, tutikostiarik ulertu ez...; gaztelania dosi egokian eta natural darabil: akononatu, es ke, a ver zer gertatu den; «laster jakin genuen erantzuna, denetan okerrena: la poli». Eta polizia aipaturik, ezin definizio gogoangarri hau lerrotatu gabe utzi:

«Nire ustez, polizia izateko garuneko gutxiagatasun kronikoren bat eduki behar da, edo gutxienez txikitari meningeen flipaduraren bat pasatutakoa izan».

Bestalde, itzultzaileak lizentzia ugari hartu du «ez idak» eta «etzegok» bezalako (akats batzuk ere ageri dira, hala nola hatxe gabe datorren hurreratu, «panikoa arren» adierazpide arraroa, hitanoaren erabilera okerra «zer ikasi hunan» huen forma zuzenaren ordezen, edo guay eta guai idazkeraren alternantzia...).

*Pol eta Val* ustekabez eta flipaduraz betetako nobela da, gustura irakurtzen dena, gazte literaturara aire freskoa dakarrena, eta pozgarriak dira halako apustuak, pizgarriak, baita beharrezkoak ere esango nuke. Irria eragiten duen azken adibide bat



12 +

ere ipinenezake, protagonistaren lehen musua deskribatzen duena:

«Ezpainak neskarekin batera ireki eta ukitu arte hurbildu nintzen, orduan mingaina luzatu nuen jomugaren bila. Bat-batean hark xurgagailu industrialak piztu zuen eta mingaina, txikia eta gogorra, nirearen inguruan bueltak hasi zen, espiral oro-txikitzailean. Izugarri ahalegindu nintzen hark espageti bat bezala ez irensteko».

Kritikatzenkotan –nahiz eta badakidan hau oso kontu subjektiboa den–, haur eta gazte literaturan narratzaileak irakurleari zuzentzeko izan ohi duen joera kritikak nuke, nire ustetan hautsi egiten baitu literaturtasunaren xarma, artifizialdu egiten du kontaketa, urrundu. Baina halakoak ere irribarre batekin gainditzen ditu egilearen hizkerak:

«Bai, Pol da nire izena. Eta ez bazaizu gustatzen, hor copón».

Laura Sagastume

14 +



ATEAREN ATZEAN  
Antton Kazabon  
*Elkar, Donostia, 2007*

### Maitasun ezinezkoa

Antton Kazabon idazle eta irakasle oiar-tzuarrak ibilbide oparoa egin du haur eta gazte literaturaren eremuan: ipuina, eleberria, poesia eta bertsozintza landu ditu, haur zein gazteentzat, eta duela gutxi haren berrogeita hamargarren argitalpena plazaratu izana ospatu zen.

Gazteentzat idazten duenean errealismoaren barruan kokatzen du bere burua, gazte horien arazo pertsonalak eta sozialak azaleratuz, eta joera horren barruan sartu beharko genuke *Atearen atzean* argitaratu berri duen gazteentzako eleberria ere.

Tarteka polemika piztu duen gaia auke-ratu du oraingoan egileak: irakaslearekin maitemintzen den ikaslearena, batxilergoko bigarren kurtsoan. Istoriaren garapenean, ordea, ez da polemika horren aztarnarik erakusten; aitzitik, zentzu onaren eta giza-legearen bidetik joaten dira kontuak, gaiak gazteengan eragin dezakeen morboa gora behera: Josu, ingeleseko irakaslea, neska baino hogeitaz zaharragoa izatea; Iraitzek,

irakaslearekin maitemindu eta berehala, ordua arteko mutil-laguna bazter uztea; eta, oro har, halako harreman sozialki «debekatu-ek» sortu ohi duten jakin-mina.

Formalki, istorioa neskaren ikuspuntutik kontatuta dago, neskak koarderno batean hartutako apunteak dira, irakasleari zuzendutak. Kapitulu bakoitzeko aurkezpen gisako lehen pasartearen ondoren, baina, kontakizuna zuzena bihurtzen da, eta etenik gabeko elkarriketen bidez eskaintzen dira gertakizunak: Iker mutil-lagun ohiarekin 2. eta 8. kapituluetan, amarekin 3. eta 10. ean; Olaia adiskidearekin 6. eta 11. kapituluetan; Josu irakaslearekin 9. ean. Elkarriketek arestian esandakoa baieztatzen dute, alegia, pertsonaia guztien arteko harremanak guztiz adeitsuak direla, Ikerren haserrealdi osasuntsuen salbuespenarekin.

Neskaren ikuspuntu bakarraren aukera bat dator, azken batean, norabide bakarreko maiteminarekin: nerabetasunaren amaieran dagoen norbaiten irudikapen eta fantasiazko ametsak besterik ez dira.

Neska amets horretatik esnarazteko modua izan da bitxia iruditu zaidana: irakasle grisez betetako institutu batean, noizbait irakasle berria eta besteak baino gazteago eta hurbilagoa iritsi, eta homosexuala izan behar. Eta ordua arte adin diferentzia, ikasle-irakasle harremana eta beste neskarentzat arazo izan ez baziren ere, orain Josuren homosexualitatea erabateko tabu gisa agertzen zaio:

«Borrokatzeko aukerarik ere ez didazu utzi, Josu. Gezur handi baten magalean kulunkatu naiz eta bertan eraiki dut nire ametsik gozoena, ederrena. Eta orain, esnatu naizenean, ametsak irentsi nau. Mundua bera ere astintzeko gai nintzela uste nuen, zure maitasuna eskuratzeko, baina kolpe gogorra izan da zurea» (83. or.).

Korapiloa askatzeko irtenbide hoberik izan zitekeelakoan nago.

Eleberria, bestela, Gemma Lluch eta Teresa Mañá-ren proposamenez geroztik «psikoliteratura» izenez ezagutzen den korrante horren barruan kokatzen da, hau da, (aurre)azken hezkuntza-erreformaren

ondorioz gazteentzat propio sortutako kontsumo azkarreko literatura. Mañá-ren beraren hitzetan adierazia,

«gaiak edozein neraberengan eragina izan dezaketen eguneroko arazoetara mugatzen dira: famili harremanetako gatazkak, ikasketetako emaitzak, lehen maitasunaren esnatzea eta, kasu bakan batzuetan, eta kastitate handiz, sexurako lehen hurbilketak [...] Egileek esperientzia-kidetasunaren bidezko identifikazioa bilatzen dute, eta ez esperientzia horien bakantasunaren bidez, eta horrekin gehiegi mugatzen dute irakurleria gazteari zuzendutako irakurketa-proposamenak».

Manu Lopez Gaseni

#### HIL ALA BIZI

R.L. Stine

Itzultzailea: ITZIAR OTEGI

Elkar, Donostia, 2007

#### Amodioaren hotz-beroak

R. L. Stine idazle estatubatuarra «Hotzikarak» izeneko beldurrezko liburu bildumagatik egin zen ezaguna gure artean, eta nerabeentzako liburu mordoxka bat idatzi du izuaren generoan.

Elkar argitaletxeak argitaratu berri duen *Hil ala bizi* eleberria ere genero horretakoa da, eta duela hamabi bat urte plazaratu zen ingelesez lehen aldiz. Protagonista Joana izeneko aberaskumea da, 16-17 urtekoa, eta istorioa hasten den unean bere maila sozial berekoa ez den Dex mutil-laguna uzteko asmotan dabil, altuago eta aberatsagoa den beste batekin hasteko. Neskak nahi duen guztia du, eta hartu eta utzi egiten du bere gogara, axola handirik gabe. Horregatik ez zion axola izan, gaueko ateraldi batean, Dex labar batean behera amildu eta ustez hil zenean. Gehiegi kezkatu gabe, bizitzak aurrera egin behar zuela pentsatuko zuen, ustez hildakoa gero eta itxura baldarragoan behin eta berriz agertu ez balitzaio. Egia, gezur, itxura eta iruzurrezko sare handi batean harrapatuta ikusiko du bere burua Joanak,

14 +



irtenbiderik gabe, eta horrek ordua artean izandako jokabidea zalantzatan jartzera eramango du. Bistan denez, izuak ere alegietakoen antzerako ondorio didaktiko-moralak ateratzeko balio dezake.

Izuaren maisu baten lana izateko (gazteentzako Stephen King deitzen omen diote), ordea, istorioaren eraikuntza ez da sendoegia: narratzaile orojakileak batera eta bestera bideratzen ditu irakurlearen uste eta inferentziak harik eta, eleberriaren bi herenetan, fantasiakoa ez baizik eta generoko kontakizun errealista baten aurrean dagoela aitortzen dion arte. Hortik aurrerako korapiloek ez dute lortzen irakurlearen arreta erakartzea, eta narrazioa motelduz doa azken ikasbiderantz. Azpimarragarriena, nire aburuz, neska aberaskume totalaren karakterizazioa da.

Itzulpena korrektoa da eta bat dator liburuaren denbora-pasarako helburuarekin, hizkera lau eta irakurterrazean emana baita.

Manu López Gaseni

#### BIDEAK, ALDAPAK ETA BIHURGUNEAK

Juan Luis Zabala

Elkar, Donostia, 2007

#### Bizitzaren bihurguneak

Uztailaren 13ko data du ipuin honetako lehen testuak, eta justu hilabete beranduago, abuztuaren 13a, eguneroko gisa idatzitako istorio honen azkenak. Hilabete horretan neska bati jazotakoak kontatzen dizkigu Juan Luis Zabalak ipuin labur eta bizi honetan.

«Frantziako Tourra utzi du Ibonek.» Esaldi horrek ematen dio hasiera eguneroko egitura duen ipuin honi, eta laster jakingo dugu narratzailea, neska gaztea, Ibonek arreba dela (Ibon Mayoren arreba, nahiz eta hori ipuinean ez aipatu, testuinguruagatik erraz ondoriozta baitaiteke). Protagonistak ez du izenik, ezta beharrik ere, «ni»ak betetzen baitu funtzio hori. Lehen pertsona kontaturiko istorioa dugu, eta tonua ere horrelakoa du, pertsonala, barnekoa, norberarentzat idatzirik egunerokoarena. Baina irakurleak eguneroko horren bitartez neska gazte horren, Ibonek arrebaren bizitzan murgiltzeko aukera izango du. Apur-apurka batzuetan, bat-batean besteetan, neskaren kezken, desioen eta ametsen erdian murgilduko gara.

Juan Luis Zabalak itxuraz oso egitura sinpleko narrazioa planteatzen du, eguneroko idazki laburrak (bi orrialde gehienetan, eta lau gehienez) kronologi zehatzik gabeak, zenbaitetan egun batzuk pasa dira testuon artean, beste batzuetan, aldiz, bi aldiz idazteko beharra sentitzen du egun berean. Baina egitura sinple horren atzean istorioak, izenburuak bezala, bide ezberdinak eta bihurguneak ditu. Horrela, hilabete horretan zehar, etxean eta familian jasandako kolpearen ondorioz (Ibonek Tourra uztea) protagonistaren baitan gertatzen ari den eboluzioaren berri izango dugu. Bizimodua bizikletaren inguruan omen du, baina poliki-poliki ikusi ahal izango dugu literatura (bitxia, benetan, txirindularitza eta literatura uztartze hori, metaliteraturari eskainitako pasartea), musikak, lagunek... betetzen dutela neskatza protagonistaren



bizitza. Baita maitasun sentimenduen inguruko zalantzak eta beldurrak ere, edo bere tokia bilatu beharra.

«Ez larritzeko esan dit (Ibonek), ez dudala zertan kezkatu, orain za-lantza handiak di-tudala, baina denborarekin bilatuko dudala nire lekua.

Nire lekua! Denborarekin! Arrazoia izango du Ibonek, baina ni ezin naiz zain gelditu.» (43. or.).

Hizkera zuzena, argia, irakurterraz darabil egileak eta, gainera, lehenago aipaturiko ipuinaren egitura kontuan hartuz, argi eta garbi dago liburu honetan murgiltzen den irakurleak ez duela utziko amaitu arte. Izan ere irakurlea harrapatzen duen testua baita, arina hizkera eta egitura aldetik eta erakargarria gaiagatik (aurreko batean Manu Lopezek komentatzen zuen psikoliteraturaren barnean koka daitekeen istorioa dugu hau ere).

Ipuin iniziatikoa da *Bideak, aldapak eta bihurguneak* hau, gaur egungo euskal neska baten inguruan eraikitako ipuina, baina batik bat neska horren garatze prozesuaz. Eta zaletasunek, oroitzapenek, gertakariak, ametsek eta porrotek bizitzaren garatze prozesuan laguntzen erakusten digute. Amaierak, alde horretatik, nahiko garbi

adierazten du ipuin honetan protagonista helburua lortzen ari dela:

«Uste dut hasi naizela gauzak argiago ikusten. Uste dut hasi naizela zer nahi dudan jakiten. Uste dut hasi naizela nire lekua bilatzen.» (57. or.).

Istoria oso gurea da, Euskal Herriko gizartea nahiko ongi islatzen da testuan eta bada arestian aipaturiko komentario literariorik:

«Euskal Herrian txirringularitza oso erro-tua dagoen arren, euskal literaturan ez duela presentzia handirik komentatu dugu» (30. or.).

Ziur gaude ipuin hau bertan komentatzen diren haiei gehitu behar diogula, ziur gaude txirringularitza zaleei bezala, literaturzaleei ere keinua egin nahi izan diela Juan Luisek ipuin entretenigarri honekin.

Xabier Etxaniz Erle

#### ASMATU NOR NAIZEN

B. Masine, R. Piumini  
Itzultzailea: AITOR ARANA  
*Ibaizabal, Bilbo, 2006*

#### Maitasun-mezuak

Institutuko ikasgela bat. Micheleren bizkar zorroan maitasunezkoa izan daitekeen ohar anonimo bat dago. Irakurri, ingurura begiratu, eta egilea zein den igarri nahian hasi da. Baliteke hainbeste gustatzen zaion neska hura izatea, baina ziurtatu beharra dago, tentu handiz ziurtatu ere.

Institutuko ikasgela bat. Inor begira ez dagoenean, Michelek arbelaren atzean tolestaturik utzi duen maitasunezko mezua hartu du neska batek, geroago irrikaz irakurtzeko. Neska abantailarekin jolasten da, Michele, ustez behintzat, bera nor den jabetu gabe dagoelako oraindik.

Eta jolasak aurrera jarraitzen du: mezu trukaketa etengabekoa izango da lau hila-betetan zehar, eta bertan azalaraziko dira



gazteen gustu eta zaletasunak, gelakideekin dituzten harremanak, bakoitzaren mundu ikuskera, ordua arte bakoitzak izandako esperientzia bakanen berri... Oroz gain, ordea, maitasuna da nagusi; eta maitasuna adierazteko orduan zaila da neurria hartzea, pinpirinkeriak irakurleen onargarritasunaren ontzian gainezka egin ez dezan. Baina, horretan ere, nor bere neurria du. Micheleren pasarte batek hauxe dio:

«Nik ez diet koska egiten liburuei, baina nirei—nirei bakarrik—orriaren goiko punta tolesten diet belarri baten moduan. Zuri horrelako zerbait egitea gustatuko litzaidake, hau da, belarri bat ongi tolestu, ez dezazun beste hitzik entzun, ez beste musikarik, nik berriz hitz egiten dizudan arte» (46. or.).

Eta, trukean, Violetak, horixe baita neska-aren izena, lehen aipatutako pinpirinkeriaren gailurrean, beste hau dio liburuaren amaieraldian:

«Tira, ez dakit nola esan, etorkizunaz jeloskor nago. Gu izoztu gintzaten nahi nuke, garen bezalakoak, orain eta hemen, bizkar-zorroetan daukagun mezu pila eta guzti. Gu han egotea nahi nuke, izoztuta baina bizirik, garden, taupaka jarraitzen duten begiekin» (94. or.).

Amaieran sorpresa txiki bat aurkituko du irakurleak; beharbada ez, ordea, espero zuena bezain ausarta. Izan ere, irakurle honen ustez, itzulpenak egokitzen handiagoa behar zuen, besteak beste Michele eta Daniele bezalakoak neska-izenak direla pentsatzeko bidea egon daitekeelako, Italian gizonetzkoenak izan arren.

Manu Lopez Gaseni

## PEACEFUL SOLDADUA

Michael Morpurgo

Itzultzailea: MIRENTXU LARRAÑAGA SUESKUN  
Alberdania, Irun, 2006


### Gerrak markatutako gazteak

Alberdania argitaletxeko Narratiba bilduman plazaratzen dira, tarteka, gazte literaturaren eta helduen literaturaren arteko muga kokatutako obrak, halako muga arbitrariorik bada behintzat. Horien artekoak dira, esaterako, *Nire aitaren fusila*, *Ahardikeriak* eta besteren bat; eta hortxe dago, hain zuzen, *Peaceful soldadua* hau.

Michael Morpurgo liburuaren egileak, berriz, literatur ibilbide luzea ez ezik arrakastatsua ere egin du Erresuma Batuko haur eta gazte literaturaren eremuan: hiru-rogeitik gora liburu argitaratu ditu, eta sari garrantzitsu askoren jabe da, horien artean *The Children's Laureate* eta *The Children's Book Award*.

Liburuak Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetatik gerrako bertako urteetara arteko denbora tarte hartzen du kontagai. Ekintza nagusia, berriz, Erresuma Batuko herrixka batean kokatzen da. Han igaro zuen bere haurtzaroa narratzaileak, eta haren lehen eskola-egunetik aurrerako narrazio bikaina izango da irakurleak jasoko duena, Tommo Peaceful-en lehen pertsonako narrazioaren benetakotasun hunkigarria.

Esanak esan, narratzaileak flash-back teknika baliatzen du, kokatuta dagoen



denboratik oroimenean atzera eginez kapitulu bakoitzean. Hasiera batean, gau oso bat bere iragana gogora ekarriz emango duela besterik ez dakigu: «la hemezortzi urte ditut, atzoz eta biharrez beteak, eta gaur gauean horietatik ahalik eta gehien gogoratu behar ditut» (7. or.); eta kapituluetako titulek ere ez digute hori baino informazio gehiago emango: lehen kapituluko gaueko «Hamarrak bost gutxi», azken kapituluko egunsentiko «Seiak minutu bat gutxi» arte. Hala ere, narrazioa aurrera doan neurrian, kapituluetako sarrerak narratzailearen egoera argiagotuz doaz.

Eta, edukiari dagokionez, bi aro edo ziklotan banatu behar da narrazioa: herriko bizimoduaren berri ematen duena, Ingalaterran; eta gerraren berri ematen duena, Belgika aldean. Bietatik lehena izan da niri beteena iruditu zaidana, begirada detaile txikietan pausatuta, eta haurtzaroko bekatu batek jota dagoen narratzailearen konplexuak markatuta: aitaren ustekabeko heriotzaren errudun sentitzen baita. Hor daude, orobat, eskolako gorabeherak, Charlie anaia nagusiarekiko harreman onak, biek maite duten neskarekikoak, Big Joe anaia atzeratua, pobreziazko bizimodua, naturarekiko hartuemanak... Obabako narrazioak

datozkigu gogora, haurtzaroaren kontakizun oro unibertsal gertatzen baita.

Bere gogorrean, ziklo hori harkadia zoriontsua da segidakoarekin konparatuta, gerrako zikloarekin. Lehen Mundu Gerra hasita dagoela, bi anaiak armadan izena eman eta kontinentera bidaltzen dituzte, alemaniarren erasoei aurre egitera. Eta hor agertzen da bere izugarrikeria erabatekoan lubakietako higatze-gerraren deskribapena, haragi propioan sufritzen ari den soldadu baten ahotik. Hori guztia gutxi baltz, armadako ofizialen jokabide zentzugabeek gidatuko dute eleberriarren amaiera, eta are azken mezua ere. Heriotza kondanaren zain dagoela dirudien Peaceful soldadua, azkenean, bizi-kondanaren zain dago, ezin bizirik, aitaren heriotzaren errua bereganatu eta urte askotara, anaiaaren heriotzarena ere bere eginda.

Bigarren parte hau, ondo kontaktuta egonda ere, topikoagoa gertatu zait, akaso lehen mundu gerrari buruz ikusitako filmen eraginez, S. Kubrick-en *Paths of Glory* (1957) harrez geroz. Egia osoa aitortzera, lehen zatia ere, bere ederrean, Clint Eastwood-en *Mystic River* antzeko film-en bat bihurtzeko idatzia izan dela ere pasa zait burutik.

Itzulpenak tarteka, eta lehen partean bereziki, dituen akats txikiak gora behera, gomendatzeko moduko irakurketa da *Peaceful soldadua*.

Manu Lopez Gaseni